


AIA • GETARIA • ORIO • ZARAUZ • ZUMAI A  KIROL ALDIZKARIA

sasoi an

2008ko iraila

1. zenbakia

Ohorea sari

Orio eta Zumaia-Getaria
Kontxako Banderan aritu dira • 8

ORDEZKARI OLINPIKOAK
Iradier eta Murua Pekinen • 4-7

ZARAUZKO SURFLARIAK
Munduko Txapelketaren zipriztinak • 10

IKASTURTE HASIERA
Eskola kirolean eskaintza zabala • 12

'IZETA II.A' ERRONKAN
137,5 kiloko harria lekuko • 16



Erredaktorea

Aritz Mutiozabal

Harremanetarako: 607 615 239

e-posta: sasoian@sasoian.info

Argazkiak

AZALA: Juan Carlos Ruiz (Argazki Press).

Beroketa ariketak: Urola Kostako Hitza.

Berriketa: Ainhoa Murua, Urola Kostako Hitza eta Berria.

Kronika: Juan Carlos Ruiz (Argazki Press).

Taldeka: Zarauzko Surf Eskola, Urola Kostako Hitza eta ASP.

Kirolari gazte: Urola Kostako Hitza.

Hariari tiraka: Urola Kostako Hitza, Joxemari Olasagasti eta Gorka Zabaleta.

Erronka: Urola Kostako Hitza.

Diseinua

Roberto Gutierrez

Maketazioa

Ane Azkue

Argitaratzailea

SASOIAN aldizkaria **Urola Kostako Udal Elkarteak** argitaratzen du.

Hilabetekari honek Aia, Getaria, Orio, Zarauz eta Zumaiako kirol albisteak jasotzen ditu.

www.sasoian.info



Urola Kostako Udal Elkarteak

kudeatzen du sasoian.info webgunea.

Aia, Getaria, Orio, Zarauz eta Zumaiako kirol albisteak, agenda nahiz emaitzak topatuko dituzu bertan.



AURKEZPENA

Sasoian gatoz

Aia, Getaria, Orio, Zarauz eta Zumaiako kirol, kirolari eta kirolzaleen berriak emango ditugu Sasoian aldizkarian



UROLA KOSTAKO UDAL ELKARTEA

UROLA KOSTAKO Udal Elkarteko Euskara Zerbitzuak hainbat ekimen bideratzen du, eskualdeko udalekin elkarlanean, euskararen erabilera sustatzeko, besteak beste, kirol arloan.

Ikastaroak, surfeko eta arraunketako fitxa didaktikoak, Saltoka kirol ekitaldia, kirol elkarteetan euskara sustatzeko Euskara Sasoian programa...; horra hor kirolean euskara sustatzeko elkarlanak azken urteotan izan duen emaitza.

Beste ale batekin gatoz orain zuregana, eskualdeko kirolari eta kirolzale hori. Aldizkari bat dakarkizugu esku

artera: **SASOIAN ALDIZKARIA**, kirol aldizkaria, euskaraz, hilero. Aia, Getaria, Orio, Zarauz eta Zumaiako kirol, kirolari eta kirolzaleen inguruko berriak eskainiko dizkizugu.

Aldizkaria ez dator, hala ere, baka-rrik, izan ere, www.sasoian.info webgunea ere eskura duzu. Eskualdeko kirol, kirolari eta kirolzaleen webgunea: albisteak eguneroko, agenda, kiroldegien informazioa, fitxa didaktikoak, kirol elkarten eskuliburua...

Kirola euskaraz egin nahi dugu zurekin, sasoian ibiltzeko.

Euskara sasoian, kirola euskaraz!

‘Kirol elkarten eskuliburua’, berriz kalean

Urola Kostako Udal Elkarteak argitaratutako eskuliburua eguneratu du Gipuzkoako Foru Aldundiak

UROLA KOSTAKO Udal Elkarteak 2003an argitaratu zuen *Kirol elkarten eskuliburua* berriz plazaratu du Gipuzkoako Foru Aldundiak, osatuta eta eguneratuta.

Eskuliburu honen helburua, lehenengo argitalpenean izan zen bezala, kirol elkarteetako eguneroko jardunean euskararen erabilera areagotzea da. Horretarako, agiriak, testuak, mezuak, aktak eta bestelakoak euskaraz zuzen

idazteko argibideak eta ereduak aurkezten ditu. Horrekin batera, hainbat kirol federazioen eta zerbitzuren harremanetarako telefono zenbakiak eta webguneen estekak bildu dituzte.

Eskuliburua Gipuzkoako kirol elkartei banatzeko asmoa du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Era berean, kirol federazioetan, liburutegietan eta eskoletan banatuko dute; ikastetxeetan kirol hezitzaileei emango zaie.

Eskuliburu berritua kaleratzeaz gain, *Kirol elkarten eskuliburuaren* bertsio elektronikoa Internetera igo dute eta honako bi webgune hauetan topatu daiteke: www.kirolaeuskaraz.net eta www.urolakosta.org helbideetan, hain zuzen ere.

Bertsio elektronikoa euskaraz idazteko ereduak jaisteko, hiztegia erabiltzeko edo kirol gaien koltsultak egiteko aukera ematen du.

Jar ezazu gorputza martxan, korrika

UDA SASOIKO oporraldiaren ostean, jendea normaltasunera itzuli da: lanera, ikastera... eguneroko errutinara, alegia. Normaltasun horren baitan, askok ariketa fisikoa egitea erabakitzen du, korrika egitera animatuz. Korrikalari bakoitzak helburu ezberdina finka dezake: oporretan irabazitako kiloak galtzea, osasuntsu jartzea, erretzeari uztea edo Behobia-Donostia bezalako lasterketa batean parte hartzeko prestatzea. Bakoitzaren helburuak eta arrazoiak edozein izanda ere, entrenamenduak planifikatzea ezinbesteko lana izango da, baldin eta hasi eta berehala itota edota etsita bukatu nahi ez bada. Bakoitzak bere planifikazioa zehaztu beharko du. Hala ere, astiro eta eroso hasi beharko du lasterka eta pixkanaka-pixkanaka erritmoa hartzen nahiz are-

agotzen joango da asteak aurrera joan ahala. Hasiberritan markak hautsi edo lehiatze kontuak saihestu behar dira, jarraikortasunez aritu eta minik hartu nahi ez bada. Aurrena korrikaz gozatzen ikastea da, eta gero etorriko da markak egiteko astia.

Korrika egitearen onura

Jarraikortasunez lasterka aritzeak onerako eragiten dio gorputzari. Hainbat ikerketak frogatu duenez, ariketa fisikoak eta batik bat korrika egiteak bizitza luzatzen dute. Astean 25 kilometro (kilometroa 6 minutuan eginez) egitea nahikoa da giza organismoan onurak nabaritzen hasteko. Era berean, astean 8 eta 16 kilometro artean lasterka egiteak bihotzeko gaixotasunen arriskua %20 jaisten du. Egutero 15 minutuko ariketa saio batek,

gainera, edozein botika lasaigarrik baino eragin handiagoa du; beraz, estresaren aurkako alternatiba egokia izan daitekeela argi dago. Laburbilduz, korrika egiteak onura fisikoez gain, giza-banakoaren ongizate sentipena areagotzen du.



ONURA FISIKOAK izateaz gain, edozein botika lasaigarrik baino eragin handiagoa egiten du lasterka aritzeak.

AHOLKUAK

KORRIKA GANORAZ EGITEKO



1. Ez zaitetz ziztu bizian hasi.

Kirola egiteko ohiturarik ez baduzu, hasi zaitetz astiro-astiro, erritmoa hartu arte.

2. Arropa eta oinetako egokiak erabili.

Hotz egiten badu, ongi jantzita atera zaitetz; bero eginez gero, gorputzera itsasten ez diren zuntz naturalez egindako arropa erabili. Oinetakoek egonkortasuna eta erosotasuna eman behar diote korrikalariari.

3. Edan ezazu ura sarritan.

Ongi hidratatzea oso garrantzitsua da. Beraz, korrika hasi aurretik, bitartean eta bukatu ondoren ahaztu gabe edan behar da ura.



4. Jarraikortasunean dago gakoa.


Astean zehar 3 alditan joatea nahikoa da, martxa hartzen joateko.

5. Luzatze-ariketak egin ahaztu gabe.

Korrika hasi aurretik luzatu itzazu giharrak, baina asko behartu gabe. Saioarean ostean, ordea, behar bezala egin luzaketak, gerora lesiorik izan ez dezazun.

Binan-binan, Txinan!

Pekingo sugarra itzali da eta Olinpiar Jokoetan aritutako kirolari guztiak etxera itzuli dira dagoeneko; batzuk dominekin eta beste batzuk, berriz, esku hutsik. Ainhoa Murua triatleta eta Borja Iradier igerilaria Jokoetara joateko txartela lortu duten eskualdeko kirolari bakarrak izan dira. Handik, ordea, ez dira oso alai itzuli. Zapore mingotsa dute oraindik ahoan, baina ez da janari txinatarraren



ren eraginez izan, nor bere proban espero bezain ongi aritu ez zelako baizik. Murua gaixotuta ibili zen eta arazoak izan zituen lasterketan zehar; azkenean, 28. postuan helmugaratu zen, 2:04:48 markarekin. Iradier, bere aldetik, ez zen fisikoki puntu-puntu ailegatu eta ez zuen lehen kanporaketa gainditu; egindako saioan seigarren izan zen, bere marka baino segundo erdi gehiago eginez (1:01,83).

Borja Iradier

Igerilaria

«**Jokoak ez dira mugatzen norberaren probetara**»

OLINPIAR JOKOETARA iritsiko zenik sekula pentsatu ez zuen arren, Pekin ezagutzeko aukera izan du Borja Iradier (Zarautz, 1980) igerilariak uda honetan. Michael Phelps estatu-batuarrak kirolaren historia letra larriz idatzi duen igerileku berean lehiatu da bera ere, bular estiloko 100 metroko proban; baina ezin izan zuen lehen kanporaketa gainditu. Hala eta guztiz ere, nazioarteko kirolarien artean bizitako esperientzia

ikaragarria izan dela adierazi du igerilari zarautzarrak.

Zure lehen Olinpiar Jokoak izan dira. Ematen duten bezain handiak iruditu al zaizkizu?

Jakin banekien Olinpiar Jokoak sekulakoak zirela, baina espero nuena baino hobeak izan dira. Bertako bizimodua eta giroa aparta izan da. Munduko Txapelketan betiko aurpegiak ikusten dituzu, baina Olinpiar Jokoetan kirol guztietako kirola-

riekin egiten duzu topo eta betidanik ezagutuko bazintuzte bezala tratatzen zaituzte. Olinpiar hiriaren barruan umiltasuna zen nagusi, eta horrek asko harritu nau. Esaterako, NBAko jokalaria lasai-lasai ikusten genituen jangelan, beste edozein kirolarirekin batera.

Finalerdietarako txartela lortu ez zenuen arren, zer moduz egin zenuen proba?

Gaizki. Banekien fisikoki ez



nengoela ongi prestatuta. Gainera, egin nuen marka baino apurtxo bat okerragoa egitea espero nuen. Ez zen urduritasunagatik izan, ezta igerilekua bera leporaino beteta zegoelako ere.

Pekinera abiatu aurretik ba al zenekien puntu-puntu ez zeundela?

Bai. Jokoetara sailkatzeko gutxieneko marka bi hilabete lehenago egin nuen. Ondoren, beti bezala entrenatzen hasi arren, txukun ez nenbilela konturatu nintzen. Beraz, banekien ez nuela ongi egingo.

Agian, zure mugara iritsi zinen?

Ez dut uste tope egin nuenik. Urte eta erdiz Jokoetara joateko gainditu behar nuen markan pentsatzen aritu naiz, pixka bat obsesionatuta. Baina ni bezala, gainerako igerilari guztiak ere halaxe aritu dira. Estres handiz ibili nintzenez, sailkatzeko marka egin ostean fisikoki baretu egin nintzela uste dut.

Indar falta sentitzen al zenuen?

Zerbait orokorra izan zen: indarra, abiadura, teknika... Guztiak

OLINPIAR HIRIAREKIN liluratuta itzuli da Iradier igerilaria; eta nazioarteko kirolarien artean zegoen giroa baloratu du.

kale egiten zidan. Bular estiloa oso estilo berezia da eta fisikoki ongi prestatuta ez bazaude, ez zara txukun ariko. Azkenean, hori da niri gertatu zaidana.

Dena dela, zure markatik nahiko hurbil geratu zinen.

Bai, segundo erdira. Baina marka hori egin nuenean ere ez nintzen horren ongi aritu. Nik banekien igeri azkarrago egin nezakeela. Beraz, sailkatzeko marka egin ondoren, denbora hobetzeko asmoz hasi nintzen lanean, baina gauzak ez zaizkit behar bezala atera.

Merezi izan al du lau urtez prestatzen aritzeak minutu bat irauten duen proba batean dena jokatzeko?

Ez da minutu hori bakarrik, ordea! Jokoak ez dira norberak egiten dituen probetara mugatzen. Ni bi astez egon naiz Pekinen eta bertako egonaldian bizitakoak merezi izan dit. Olinpiar Jokoak barrutik ezagutu nahi nituen, eta lortu dut.

Jokoez gozatu duzula aitortu duzu. Igeriketaz gain, beste probaren bat ikusteko aukerarik izan al duzu?

Bai, atletismoa ikusten aritu nintzen. Usain Bolt jamaikarrak 100 metroko lasterketan hautsita-ko marka bertatik bertara ikusteko aukera izan nuen. Estadio

guztia zur eta lur geratu zen! Bestalde, Rafa Nadalen tenis partidak ere ikusi nituen.

Pekin igaro da. Londres izango al da zure hurrengo geltokia?

Ez dut uste Londresko Jokoetara iritsiko naizenik. Gainera, orain hainbat aldaketa egingo ditut nire bizitzan: Zarautzera itzuliko naiz bizitzera, ikasketak Donostian bukatu nahi ditudalako. Ondorioz, Donostian dagoen Gipuzkoako zentroan hasi nahiko nuke entrenatzen eta, horretarako, Zamorako elkarte utzi eta Gipuzkoako elkarte batekin federatu beharko nuke.

Aldaketa horrek orain arte izan duzun maila baldintzatuko duela uste duzu?

Hori da hain justu ez dakidana! Ni, behintzat, lehenago modu berean entrenatzen saiatuko naiz. Bular estiloa oso modalitate teknikoa da, oso zaila. Ni beti bezala hasiko naiz entrenatzen, eta mailari eusteko gai ez baldin banaiz, igeriketa utzi egingo dut. Nahiago dut gauzak garaiz utzi, arrastaka ibili baino.

✔ Bitxikeria.

Olinpiar Jokoen irekiera ekitaldiko desfilean hartu zuen parte. Alboan zituenak baino apurtxo bat altuagoa zenez eta hiru eguneko bizarra zeramanenez, txinatarrek Pau Gasol zela pentsatu zuten eta sinadura eske hurbildu zitzaizkion.





Ainhoa Murua

Triatleta

«Hobeto egin nezakeela uste dut eta horrek amorrua ematen dit»

SUKARRAREKIN, ERORITA eta min hartuta ibili da Ainhoa Murua (Zarautz, 1978) triatleta bere bigarren Olinpiar Jokoetan. Ondorioz, 28. postuarekin konformatu behar izan du; Atenasen baino 4 postu atzerago, alegia. Lasterketa hobia egin zezaken sentipenarekin itzuli da etxera, hilabetez Hego Korean eta Pekinen izan ondoren. Proba egin aurretik Jeju izeneko irlan (Hego Korea) aritu zen prestatzen.

Gustura geratu al zara Pekinen egindakoarekin?

Egia esan, penetan geratu naiz. Triatloiko proba baino bi egun lehenago gaixotu egin nintzen, eta horrek ematen dit amorruek gehien. Hiru astez han egon ondoren, lasterketa egunaren bezperetan gaizki jartzea ere! Ez dakit bertako klimatik izan zen ala aire girotuagatik, baina ez nintzen bakarra izan. Jende gehiago ere gaixotu zen.

Une horietan zer pasatu zitzazun burutik?

Egoera horretan, zauden modu-

an egonda, proban ezingo duzula parte hartu pentsatzen hasten zara. Gaua hotzikarekin eta sukarrarekin pasatu ondoren, hurrengo eguna ohean igaro behar izan nuen. Horrek guztiak, noski, psikologikoki eragiten dizu. Hego Koreatik moralki indartsu abiatu nintzen Pekinera, entrenamendu onak atera zitzaizkidalako, baina gaixoaldiak lur jota uzten zaitu... Eta horrelako maila duen nazioarteko txapelketa batean, topera zaude edo bestela ja izan duzu.



Eta lasterketari sendatuta eman al zenion hasiera?

Egunean bertan ez nuen sukarririk izan. Bezperan psikologikoki behera etorri nintzen arren, lasterketan ahal duzun guztia ematen saiatzen zara. Igerian nahiko eroso aritu nintzen, eta buru zihuan 20 lagunez osatutako tropelean atera nintzen uretatik. Txirrindularitza proban geratu egin nintzen aldapan, indar gutxirekin ikusten bainuen neure burua; ondoren, gainera, erori ere egin nintzen. Eta korrikako saioa, azkenik, nahiko gustura egin nuen. Txirrindularitza probak eman zidan pena gehien.

Ahuldade hori sukarrari egotz dakiok?

Nik uste dut egoera arruntean egonda, buru zihuan taldeak ezarritako erritmoari eusteko gai izango nintzela. Azken finean, eragina duela uste dut, sukarrarekin asko deshidratatzen zara eta.

Europako Txapelketan 27. egin zenuen eta Atenasen 24. postuan amaitu zenuen. Alde horretatik begiratuta, lortutako 28. postua txarra izan al da?

Okerrago ere izan zitekeen. Are gehiago, lasterketan erori nintzela kontuan izanda. Korrika 42. postuan hasi nintzen. Buruan talde bat zihuan eta horien atze-

BIZIKLETAKO proban erori zen arren, lasterka aurkari ugari aurrea hartu zion triatleta zarauztarrak.

tik nindoan ni, bigarren taldean. Sei lagun lurrera erori ginen eta boxeen eremura gure taldetik minutu batera iritsi nintzen. Lasterketan zehar ongi nengoela ikusita, batik bat igerian eta korrikan, amorrua ematen dit. Hobeto egin nezakeela uste dut.

Olinpiar Jokoetan parte hartu duzun bigarren aldia izan da. Atenasko magia bera sentitu al duzu?

Atenasen dena berria zen eta ez nekien zer aurkituko nuen. Pekinen, ordea, banekien zer topatuko nuen. Dena dela, proba egin aurretik Hego Korean bilduta egon ginenez, ez zitzaidan iruditzen Olinpiar Jokoetan nengoenik. Munduko Kopako lasterketa bat gehiago zela zirudien, eta ondorioz, urduritasun gutxiagorekin nenbilen. Proba bukatu ondoren gozatu nuen olinpiar hiriaz eta Jokoez.

Londresko Olinpiar Jokoetan izango al zara?

Auskalo! Oraindik ez dut ezer pentsatu. Memento, lehiatzen jarraituko dut eta joango gara ikusten. Urruti ikusten da, baina berehala iristen da; Atenasko Jokoak atzo izan zirela iruditzen

zait, esaterako. Lau urte azkar pasatzen dira eta, aldi berean, gauza asko gerta daiteke. Beraz, urtez urte joan nahi dut.

Zein da zure hurrengo helburua?

Ez dakit, oraindik ez dut zehaztu helbururik datorren denboraldirako. Lehenik eta behin, aurtengo denboraldia bukatuko dut, belaunak laguntzen baldin badit. Izan ere, apurtxo bat minduta nabil azkenaldian. Bestela, Munduko Kopako zirkuituko bi lasterketa geratzen zaizkit: bata, hilabete bukaeran, Frantzia, eta bigarrena, urria bukaeran, Mexikon.

Olinpiar Jokoetatik lesionatuta itzuli al zara?

Bai, lasterketa baino astebete lehenago min ematen hasi zitzaidan belauna, baina jasan egin nuen. Pekingo triatloi probako lasterketa aldapa gora eta behera zenez, aldapa beherako entrenamenduak egiten aritu nintzen eta minduta bukatu nuen saioa, baita lasterketa bukatu ondoren ere.

☑ Gelditu gabe.

Pekinetik itzuli eta entrenatzen jarraitu du Muruak.

Gelditu gabe dabil. Irailaren 14an, esaterako, Espainiako Triatloi Txapelketan aritu zen Ferrolen (Galizia). Hirugarren postuan helmugaratu zen bertan, 02:02,28 denborarekin. Bere aurretik Marina Damlaimecourt eta Radka Vodickova sailkatu ziren, hurrenez hurren. Irabazleak baino 40 segundo gehiago behar izan zuen triatleta zarauztarrak proba osatzeko.



Berdintasunerako ziaboga

Orioko mutilak eta Zumaia-Getariako neskak aritu dira aurtengo Kontxako Banderan; emakumezkoek lehen aldiz hartu ahal izan dute parte urteko estropada garrantzitsuenean.

ZUMAIA-GETARIA trainerua hirugarren sailkatu zen Kontxan.

INORK EZ DU zalantzan jartzen. Jokatzen diren estropada guztien artean preziatuena da Kontxako Bandera. Arraunketako txapelduen liga edo Olinpiar Jokoak dira, gutxi gorabehera, eta arraunlari, arraun talde eta arraunzale guztiak hitzordu horren zain egon ohi dira urte osoan. Aurtengoa, gainera, berezia izan da. Historian lehendabiziko aldiz emakumezkoek Kontxako estropadan parte hartzeko aukera izan dute. Beraz, bi bandera egon dira jokoan.

Bietan eskualdeko talde bana aritu dira lehian: emakumezkoetan Zumaia-Getaria eta gizonezkoetan, Orio; Zarautzek eta Zumaia ez zuten sailkatze proba gainditu. Emakumezkoen bandera Meira, Cabo da Cruz eta Chabela taldeetako arraunlariak osatutako Galizia taldearentzat izan zen; gizonezkoena, berriz, Castrorentzat. Sailkapen orokorrari dagokionez, berriz, Zumaia-Getariako neskak hirugarren izan ziren eta Orioko mutilak, bigarren.

Estropada «berezia»

Kontxako estropada estreinako aldiz jokatu duten emakumeak izan dira Galiziako, Astilleroko, Hondarribiko eta Getaria-Zumaiaiko arraunlariak. Zumaia-Getaria traineruko Atsegin Odriozolak aitortu duenez, «une oso bereziak» izan dira Kontxan bizitakoak: «Oso pozik gaude egin dugun lanarekin. Emozio biziz aritu gara guztiak. Ikusmin handia sortu dugu emakumeok: jende asko joan da gu ikustera eta horrek asko lagundu digu. Itsasora atera ginenean txalo artean hartu gintuzten, eta horrekin bakarrik guztiok sentitu ginen irabazle».





Kanporaketa egunean lehen postuan sailkatu zen Zumaia-Getaria, alde nabarmenarekin, baina estropada nagusian hirugarren postuarekin konformatu behar izan zuen; Galiziaren eta Astilleroren atzetik, hurrenez hurren. «Jakin bagenekien itsaso handiarekin hobeto moldatzen ginela, baina ez genuen uste horrenbesteko alderik aterako genienik kanporaketako proban. Igandean, ordea, itsaso gutxiago zegoen eta pentsatzen genuen baldintza horietan gainerako traine-ruak gu baino hobeto moldatuko zirela. Gutxi gorabehera, bagenekien zein postutan sailkatuko ginen eta oso pozik gaude lortutako postuarekin. Gainera, ez ziguten horrenbesteko alde ateratu», azaldu du Odriozolak.

Datorren urteari begira, emakumeen arrauna «indartzen eta egonkortzen joatea» espero du Zumaia-Getariako arraunlariak: «Oihartzun handia izan du azken hilabeteetan. Ea honek guztiak jarraikortasuna duen eta anekdota hutsean ez den geratzen!»

Garaipenarekin «gustura»

Orioko trainerua ohorezko txandarako sailkatu zen, Castrokekin, Urdaibairekin eta Astillerorekin

Castrok alde nabarmena atera zuen lehenengo igandean, eta bandera poltsikoan zuela aritu zen Kontxako egun handian

batera. Castrokek alde nabarmena atera zieten gainerakoei lehenengo igandeko estropadan, eta bandera jada poltsikoan zutela aritu ziren egun handian; 18 segundo ateratu zizkieten bigarrenari eta hirugarrenari, hau da, Urdabairi eta Astillerori; eta laugarren postuan sailkatu ziren oriotarrei, berriz, 24 segundo. Baina *mirotzak* ez zeuden amore emateko prest eta halaxe erakutsi zuten Kontxako egun handian: ohorezko txandako estropada irabazi egin zuten eta, gainera, sailkapen nagusiko bigarren postura igotzea lortu zuten.

«Gure helburua estropada irabaztea zen. Tentsioa mantentze aldera, helburu bat finkatu genuen astean zehar eta bandera irabaztea oso zaila zenez, txanda irabaztera abiatu ginen», eman du jakitera Orioko arraunlari Gorka

Etxeberriak. Garaipenarekin gustura geratu diren arren, bandera ez irabazteak pena eman diela azaldu du. Izan ere, «nahiz eta Liga eta beste estropada batzuk jokatu, urteko helburu nagusia Kontxa izaten da». Ondorioz, zapore gazi-gozoarekin geratu dira. Hala eta guztiz ere, zaleak gustura uzteko balio izan die: «Aurten oso erregular aritu ez garenez, erakusleihu onena ohorezko txanda irabaztea zen».

Sailkapen orokorrean laugarren postutik bigarreneara jauzi egiteko balio izan zuten garaipenak oriotarrei eta «hori Kontxan postuak igotzea oso zaila dela», dio Etxeberriak. Urdaibairekin eta Astillerorekin zuten alde oso handia ez zela nabarmendu du Orioko arraunlariak, 6 segundokoa, «eta guk bagenekien txanda irabaziz gero, eta zorte pixka batekin, aipatutako bi traineruei aurrea hartu geniezaiekeela». Castrori bandera kentzea, berriz, ia sinesgaitza zen. Dena dela, «prest egon behar duzu, halako estropada batean edo zer gerta daitekeelako. Baina normalean ez da ezer pasatzen, eta ateratu dizuten denborari buelta emateko ezustekoren batek gerta-tu behar izaten du».

Harrotutako olatuen gainerik

Zarauzko Surf Elkarteak urteak daramatza herriko surflariekin lanean, harrobi sendoa sortzen. Hemendik hilabete batzuetara malekoian duten lokala zaharberrituko diete.

ZARAUZKO SURF Elkartearen lehen hazia duela 20 urte landatu zuten, Jose Antonio San Segundok, Alberto de la Mazak eta Joseba Iriondok Zarauzko Surf Taldea eratu zutenean. Hiru urte geroago, 1991n, Mikel Troitiñok, Aitor Frantzesenak eta Eli Berazadik Zarauzko Surf Eskola sortu zuten eta ikastaroak ematen hasi ziren. Bi proiektuek bat egin zuten 1997an, eta gisa horretan egungo elkartearen abian jarri

zen. ZSEren egoitza malekoian bertan dago kokatuta, Karlos Argiñanoren jatetxearen azpian. Lokal hori Zarauzko Udalak utzitakoa da, eta herriko surflarientzat beharrezko diren aldagelak, dutxak eta taulak uzteko biltegiak ditu.

Lokala zaharberritzen

Elkarteko idazkari Iban San Martinek aurreratu duenez, urte amaieran egoitza handitu eta berrituko dute: «Zarauzko Udalak urteko aurrekontuetako partida bat bideratuko du horretara. Hala, lokalaren banaketa egokia egingo dugu: taulen biltegi handi eta seguru bat, bulego eta bilera gela bana... eta emakumezkoentzako eta gizonezkoentzako aldagelak. Orain arte, aldagela bakarra izan

dugu». Zaharberritze lanak direla-eta martxo bitartean lokala itxita egongoenez, Zarauzko Arraun Elkarteak malekoian zuen lokala erabili ahal izateko Udalarekin hitz egiten ari dira elkarteko kideak.

Une honetan bazkide gehien duen Euskal Herriko surf elkarteetako bat da ZSE, 330 bazkiderekin. Elkarteko kide izateko, interesatuak zarauztarra izan eta 100 euroko sarrera ordaindu behar du. Ondoren, 50 euroko kuota ordaintzen dute urtero.

ZSEko zuzendaritza batzordea honako kide hauek osatzen dute: lehendakaria Mikel Landa da; lehendakariordea, Jose Antonio San Segundo; batzordekideak, Jon Erostarbe eta Mikel Urigoitia; eta idazkaria, Iban San Martin. Azken



330 BAZKIDE

Zarauzko Surf Elkarteak 330 bazkide ditu gaur egun; bazkide gehien duen Euskal Herriko surf elkarteetako bat da, zalantzarik gabe

honek, gainera, elkarteko kudeatzaile lanak ere egiten ditu.

Harrobia zaintzen

Harrobiari garrantzia handia ematen diote, eta ikusi besterik ez dago atal horretan egindako lanaren fruitua: Aritz Aranburu, Hodei Collazo, Myrian Imaz, Karlos Gomez, Mario Azurza, Lore Eizagirre, Axier Muniain, Idoia Meabe... Zerrenda benetan luzea da, eta hainbat belaunaldik osatua. Elkartea guztien jarraipena egiten ahalegintzen da eta ahal den neurrian laguntzen.

ZSEk surfa ezagutzen joateko bi ikastaro eskaintzen ditu: alde batetik, surf eskola dute eta bestetik, eskola kirolaren baitako ikastaroa. Eskola kirolean, «zerbitzu bat eskaintzen diegu ikastetxe guztiei, surfa ezagutu nahi duten ikasleei zuzenduta. Guretzat hor hasten da harrobia», azaldu du elkarteko idazkariak. Ikastaro horiek irailetik abendua arte eta apiriletik ikasturte bukaera arte ematen dituzte. Surf eskola, berriz, urte osoan izaten dute zabalik, nahiz eta jende gehienak uda sasoiari ematen duen izena.

Hainbat txapelketa urtean

Aipatutako surf ikastaroez gain, hainbat txapelketa ere antolatzen dute urtean zehar: Munduko Surf Txapelketa irailean; Txiki Surfa abuztuaren hirugarren astean; eta Ibon Imazen Oroimenezko Zarauzko Surf Txapelketa maiatzaren erdialdean. Era berean, surfeko enpresa batzuekin elkarlanean, Moskito Tour edo Rip Curl Girl Surf bezalako probak egin dituzte.

Aurtengo Munduko Surf Txapelketarekin gustura geratu dira, eta «balorazio sakon bat» egin nahi dutela dio San Martinek. Horren arabera, «aztertuko dugu ea datorren urtean 6 izarreko proba antola dezakegun ala ez. Dena dela, babesleekin eta Udalarekin luze hitz egin beharko dugu».

Rip Curl Pro Zarautz 2008 Munduko Surf Txapelketa

TIM BOAL lapurtarrak irabazi zuen irailaren 9 eta 14 artean Zarauzko hondartzan jokatu zen Rip Curl Pro 2008 munduko surf txapelketa. WQS zirkuituko probak bost izar izan ditu aurten eta Boal angeluarrak nagusitasunez irabazi zuen Joan Duru frantziarrarekin buruz buru jokaturako finala, hurrenez hurren, 16,34 puntu eta 10,87 puntu lortuta. Garaipen honekin, WQS zirkuituko lehen postura igo da Boal eta ziurrenik datorren urtean munduko 45 surflari onenek osatzen duten WCT zirkuituan ariko da. Hori hala izanez gero, «txikitatik izandako ametsa egi bihurtuko» litzaiokeela aipatu zuen Boalek.



ARITZ ARANBURUK ez zeukan egutegiko aurreikuspenen artean bere herrian jokatu zuen bost izarrekoa. Kalifornian kaleratua izan ondoren, ordea, azken unean hartu zuen etortzeko erabakia, Mario Azurzaren gonbidapen txartela baliatuta. Errondaz erronda aurrera egin zuen finalaurrekoetara iritsi arte. Finalaren aitari, olatu eskasiak ez zion bere gaitasuna erakusteko aukera handirik eman eta Joan Duru aurkariak, aldiz, zirrikitu guztiak aprobetxatu zituen. Hirugarren postua



MUNDU guztitik etorritako 154 surflari elkartu ziren Zarauzko uretan; horien artean 17 etxekoak: Unai Arizeta, Mario Azurza, Hodei Collazo, Karlos Gomez, Dani Goya, Oier Illarramendi, Alex Iriondo, Roberto Letamendia, Asier Makeda, Asier eta Igor Muniain, Manex Otegi, Markos San Segundo, Ander Ugarte, Indar Unanue, Imanol Ilegi eta Aritz Aranburu. Txapelketako lehen errondan hartu zuten parte etxeko surflari gehienek eta askok ez zuten aurrera egiterik izan. Asier Muniain eta Ander Ugarte bigarrenengoan joan ziren kalera, eta Hodei Collazok hirugarren errondan esan zion agur aurtengo txapelketari.

lortuta, gustura agertu zen Aranburu. «Txanda guzietan gogor borrokatu behar izan dut. Txapelketa irabazteko asmoz etorri naiz, iazkoa errepikatzea, baina ezinezkoa izan da».



Ikasturte honetan bihurtu zaitez kirolari!

Eskolara, ikasturte berria hasi da eta! Uda zeinen ongi igaro duzuen eta zenbat gauza egin dituzuen kontatzen ariko zarete ikaskideok zeuen artean. Baina datozen hilabeteetan ere makina bat gauza egiteko aukera izango duzue. Besteak beste, hainbat kirol mota duzue aukeran.

IZENA EMAN duzue jada dantza ikastaroan, solfeoko ikasketetan, marrazki lantegian... eta astirik ez duzue. Baina ongi antolatuz gero, denbora egon bada-go! Eta zergatik ez diozue begirada bat ematen zuen ikastetxeetan topatuko duzuen kirol eskaintzari? Futbola, eskubaloia, atletismoa, saskibaloia, pilota...

Telebistan eta bideo-jokoetan horren ikusgarriak iruditzen bazaizkizue, askoz ere gustagarria-

goak direla ohartuko zarete zeuek praktikatzen dituzuenean. Ongi pasatzeaz gain, hainbat kirol ezagutzeko aukera ematen baitu eskola kirolak.

Kirol jarduerak astebukaeretan izan ohi dira eta lagunartean aritu zintezkete, eskolako adiskideekin batera. Era berean, beste ikastetxe edota herri batzuetako jendea ezagutzeko aukera ere izango duzue, lagun berriak egingenez. Gainera, garrantzitsuena ez da irabaztea, kirol jardueretan parte hartzea eta egiten duzuen kirolaz gozatzea baizik. Askok pentsatu dute jada aurten zein kirolتان arituko diren. Zuek aukeratu al duzue zuen kirola?



DATUA

39

Aurtengo udan Pekinen egin diren Olinpiar Jokoetan 39 kirolean lehiatu dira mundu guztiko kirolariak. Atletismoa, futbola, igeriketa... zerrenda guztia osatu arte. Kopuru hau ez da beti horrela mantentzen, Olinpiar Jokoak egin diren bakoitzean aldatzeko aukera baitago. Hurrengo Olinpiar Jokoak 2012an egingo dira Londresen eta baliteke golfa, karatea edo errugbia kirol olinpikoen zerrendan sartzea. Bestalde, gutxitasun fisikoak dituzten kirolariek ere badituzte beraien Paraolinpiar Jokoak; Pekineko kasuan, 20 kiroleko zerrenda izan dute kirolari horiek.



BA AL DAKIZU...

Zer esanahi duten uztai koloretsuek?

Olinpiar Jokoen ikur nagusia uztai gorria, horia, urdina, beltza eta berdea elkartzen dituen marrazkia da. 1914an sortutako irudi honekin munduko bost kontinenteen arteko elkartzasuna islatu nahi izan zuten. Dena den, garai modernoko lehen Olinpiar Jokoak 1896an egin ziren Atenasen.

Hiru kirol, aniztasuna sustatzeko

Hondartzako futbola, eskubaloia eta saskibaloia ezagutzeko aukera izango duzue.

Aiako, Getariako, Orioko eta Zarauzko

ikastetxeek ikastorduz kanpoko kirol eskaintza eta egutegi komuna dute, Lehen Hezkuntzako 3. mailatik 6. maila bitarteko ikasleentzat. Horietan guztietan ikasleentzat bateragarriak zaizkizuen hainbat kirol jarduera antolatzen dute urtean zehar. Kirol horiek zazpi dira guztira: hondartzako futbola, eskubaloia, saskibaloia, pilota, atletismoa, errugbia eta mendia. Horiez gain, aukera zabalagoa ere izan ohi da. Ikastetxeek kirol aniztasuna sustatzen dute, ahalik eta kirol gehien ezagutu eta praktikatu dezazuen. Horregatik, hiru kirolez osatuta dagoen eskaintza batean izena ematera animatuko zaituztete. Eskaintza hori hondartzako futbolaz, eskubaloiaz eta saskibaloiaz osatuta dago. Hortik abiatuta, beste kirol batzuk ere probatu ditzakezue.

Aia

Getaria

Orio

Zarauz



Zumaia

Futbola, eskubaloia, pilota eta gehiago

Aurten, arrauna ere jarri nahi dute kirol eskaintzaren baitan.

Zumaiako Herri Eskolako

eta Maria eta Jose Ikastetxeko Lehen Hezkuntzako 3. mailatik 6. mailara bitarteko ikasleek makina bat kirol egiteko aukera duzue aurten ere. Gehienek eskubaloia, futbola eta pilota (eskuz, paletaz eta xisteraz) aukeratzen duzue, eta Zestoako ikasleekin batera

aritzen zarete partidak jokatzen. Futboleari bi modalitate dituzue: 3. eta 4. mailakoentzat areto futbola antolatzen dute eta 5. eta 6. mailakoentzat, berriz, 8 lagunez osatutako futbola. Baina aipatutako hiru kirolak bezain dibertigarriak diren beste batzuetan ere eman dezakezue izena: mahaitenisean, piraguan, mendi irteretan, herri kirolean, surfean edo txirrindularitzan. Aurten, gainera, arrauna ere jarri nahi dute.

Zumaiako lasterketa XII. Zakila Bira urriaren 4an jokatuko da, arratsaldez

ZUMAIAKO UDALAK antolatuta, urriaren 4an XII. Zakila Bira lasterketa jokatuko da, 17:00etatik aurrera. Parte-hartzaileek 20 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute, Arroa, Iraeta, Aizarnazabal, Oikia eta Bedua zeharkatuz. Izena aldeztu aurretik eman daiteke Zumaiako Lubaki kiroldegian (tel.: 943 862021), Zarauzko Nere-Sport dendan (tel.: 943 131689) eta Donostiako Laister dendan (tel.: 943 430704), eta 10 euro jarri beharko dira. Lasterketa egunean bertan, berriz, 13 euro balioko du eta Itsas Kiroldegian eman beharko da izena, proba hasi baino hiru ordu laurden lehenago. Informazio gehiago www.zumaia.net webgunean.



Zesta punta

Hainbat pilotari zumaiar zesta puntako Munduko Zirkuitua txapelketan parte hartzen ari da. Banakakoa abian da eta bertan Gotzon Enbil eta Iñaki Goikoetxea dabilta (argazkian). Finala urriaren 4an izango da. Binakako txapelketako ligaxka urriaren 10ean hasiko da eta finaleko partida urriaren 26an jokatuko dute bikote onenek. Iñaki Goikoetxea Cisnerosekin ariko da; Enbil, Zelaiarekin; Luis Goikoetxea, Irastorzarekin; eta Alberdi II.a eta III.a elkarrekin.



Orio Arraun Elkarteko kide Joxemari Urdangarin hil da

Irailaren 9an hil zen bihotzekoak jota, 62 urte zituela. Inoiz arraunean aritu ez arren, elkarteari laguntzen aritzen zen egunero-egunero erreiroa hartu zuenetik.

Zarauzko surfa Nesken zirkuitua

ABUZTUKO AZKEN larunbatean Zarauzko hondartzan egin zen Nesken Surf Biltzarraren baitan, emakume surflariei zuzenduta dagoen Billabong surf zirkuituko azken proba jokatu zuten eta garaipena etxean geratu zen. Lore Eizagirre (argazkian) Open mailan gailendu zen; 18 urtez azpikoen mailan, Edith San Segundo; eta

12 urtez azpikoen mailan, June Erostarbe. Idoia Meabek bigarren postua lortu zuen Open mailan. Eizagirrek eta Sansegundok, era berean, emakumeen surf zirkuituko sari nagusia jaso zuten, sailkapen orokorreko lehen postuan bukatu ondoren. Emakumezkoen artean ere harrobi polita dago Zarautzen!



Hondartzako **futbola** Hasteko prest

ZARAUZKO 65. Hondartzako Futbol Txapelketan izena emateko epea zabalik dago. Txapelketan aritu nahi duten taldeek urriaren 3a bitartean eman beharko dute izena Zarauzko Kirol Elkartearen egoitzan (Musika Plazan), 350 euro ordainduz. Antolatzaileek jakitera eman dutenez, urriaren 4an bilera egingo dute talde guztiek. Eskualdeko talde ugari parte hartzen du hondartzako futbolean, bai gizonezkoetan bai emakumezkoetan. Bestalde, Zumaiako hondartzako futbol txapelketa berreskuratu nahian dabil herritar talde bat. Dagoeneko lanean hasi dira eta lehendabiziko bilera egin dute.



Estrada futbol jokalariairen zaleek taldea osatu dute

Realeko jokalaria Dani Estrada zarauztarraren zaleek taldea osatu dute, Zarautzen. Taldea irailaren 15ean aurkeztu zuten Itxas-Lur tabernan eta jokalaria ekitaldian izan zen.

Zumaiako **piragua** Txapelketa gazi-gozoa

ITXAS-GAIN TALDEKO Oier Aizpurua piraguita zumaiarrak eta Manuel Busto asturiarrak aurten Munduko Txapelketan parte hartzeko asmoa zuten, baina «Espainiako selekzioko hautatzailearen jarrera lotsagarriagatik» planto egitea erabaki zuten.

Aizpurua-Busto bikotea 5 aldiz izan da munduko txapel-dun K-2 modalitatean. Iaz ere beraiek irabazi zuten eta horren ondorioz irailaren erdialdean Txekiar Errepublikan jokatu zen txapelketan aritzeko aukera bermatuta zuten. Baina parte hartzeko beste bikote batzuen aurka lehiatu eta irabazi behar-

ko zutela esan zien hautatzaileak. Bikoteak ez zuen proposamena onartu eta ez zen Txekiar Errepublikara abiatu.

Itxas-Gaineko Xabier Osak, aitzitik, Munduko Txapelketako lasterketa jokatu zuen K-1 eta K-2 modalitatean. Beteranoen mailako 40 eta 45 urte bitarteko multzoan lehiatu zen Osa, eta oso gustura itzuli zen bertan egindako lanarekin. Binakako proban Monchu Cerra asturiarrarekin batera aritu zen eta urrezko domina lortu zuen. Bakarkako proban, berriz, bosgarren postuan helmugaratu zen, lasterketa gogorra jokatu ostean.



GORKA ZABAIETA

Mendeko apostua hastear dago

Bost hilabete pasatu da 'Izeta II.a' eta Aimar Irigoien harri-jasotzaileek apustua egin zutenetik. Harrezkero, plaza gutxi egin du batak zein besteak, indar guztiak irailaren 28ko erronka nagusirako gordez.

JOSE RAMON Iruretagoiena Izeta II.ak apirilaren erdialdean adostu zuen apustua Aimar Irigoienekin Tolosako Kantabriko tabernan: 10 minutuko hiru txandatan ea nork gehiagotan altxa 137,5 kiloko harri kubikoa. Harrezkero, jo eta su aritu da, nahiz eta azken bizpahiru asteetan entrenamenduen erritmoa arindu eta harriarekin astiro-astiro aritu den. «Luze egin zait eta eguna iristeko desiratzen nago», aitortu du harri-jasotzaile aiarrak. Bada, egun handia gainean da. Apustua irailaren 28an jokatu dute Tolosako zezen-plazan, 12:00etan, eta irabazleak 20.000 euro poltsikoratuko ditu.

Zehaztu duten lana oso gogorra izateaz gain, gutxitan ikusi ohi den horietakoa da. Izeta II.ak jakitera eman duenez, «maratoi bat osatzea bezalakoxea». Izan ere, «harri-jasotzaile bakoitzak 20 minutuko atsedendia izango du txanda eta txanda artean, eta horrek luzea bezain nekeza bihur-

tuko du saioa». Txanda batetik bestera edozer gerta daitekeela abisatu du, baina garbi dauka hirugarren txanda ongi bukatzen duenak irabaziko duela.

Erronkak zeresan handia eman du hasiera-hasieratik, harri-jasotzaile bakoitzak pisu ezberdineko harriak proposatu zituelako: «Nik 125 kiloko harriarekin bota nuen hasierako apustua eta, ondoren, Irigoienek 150 kilokoarekin erantzun zuen. Azkenean, erdira etorri ginen, 137,5 kiloko harrira. Nik nahiago nuen harri txikiagoarekin jokatu, hobeto moldatzen bainaiz», dio Iruretagoienak. Dena dela, finkatutako pisuarekin marka asko dituela eta oraingo honetan ere proba irabazteko prest dagoela adierazi du.

Ikusmina jaun eta jabe

Ziur dago igandekoa «mendeko apustua» izango dela esatean: «Nik urte asko daramat honetan eta Aimarrekin ere erakargarritasun handia du jendearengan. Gaztea eta indartsua izateaz aparte, Euskadiko txapelduna da. Beraz, bata 22 urtekoa eta bestea 41 urtekoa izanik, sekulako ikusmina eta giroa sortuko da plazan».

Erronka hau dela medio, batak zein besteak plaza gutxi egin dute apiriletik hona. Horrelako lan batek asko exijitzen duela eta, bakoitza bere aldetik buru-belarri aritu da prestatzen. Aurten oraindik ez dute elkarrekin erakustaldirik egin eta horrek ere ikuslea erakarriko duela pentsatzen du aiarrak: «Urtean zehar plazatan gutxi aritu bazara, halako apustu

batek oraindik eta morbo gehiago izaten du».

«Mendeko apustua» izanda ere, Izeta II.ak argi eta garbi du probak ez duela erabakiko mementoko harri-jasotzaile onena nor den: «Hori gehiegixto esatea da. Lan hau ez da nahikoa hori frogatzeko. Apustua irabazten duenak apustua irabaziko du eta kitto!».

138 KILOKO harriarekin ariko da harri-jasotzaile aiarra; beti kilo erdi gehiagorekin ekoizten dituzte harriak, badaezpada ere.

